



...ou ákare eabja xuai orla bazenrik ez sejin*

Altzan, 2004ko otsailaren 2an.

Agur t'erdi:

BizaRa In Kultur Elkartearen izenean idazten dizugu otsailean egingo ditugun jardunaldien berri eman eta bertan parte hartzeko gonbitea egin asmoz.

BizaRa In kultur elkarteak hiru urte daramatza Altzan Bai Euskarari Prozesua sustatzen eta dinamizatzen, Donostiako Euskararen Udal Patronatuarekin elkarlanean. Prozesu horren baitan Altzako 65 enpresa eta erakundek euskararen plan estrategikoa diseinatu dute eta euskararen normalizazioa erdiesteko hurrengo urteotan jarraitu beharreko pausuak definitu dituzte.

Hain zuzen ere, Altzako Euskararen Plan Estrategikoa izango dugu mintzagai otsaileko jardunaldietan. Hona hemen egitaraua:

• **Otsailak 16, astelehena - HITZALDIA:**

Altzako Euskararen Plan Estrategikoaren emaitzen aurkezpen publikoa eta aurrera begirako ekimenak.

• **Otsailak 19, osteguna - SOLASALDI-EZTABAIDA:**

Altzako Euskararen Plan Estrategikoa eragile politikoaren ikuspuntutik.

Otsailaren 16ko saioan, 2003ko apirila eta maiatzean zehar zuen sektorerako diseinatu zenuten Plan Estrategikoaren emaitzak aurkeztuko dizkizuegu, beraz, bertan parte hartzeko gonbidapena luzatzen dizuegu. Bi ekitaldiok **19:30etan Altzako Casares Kultur Etxean** izango dira.

Besterik gabe, bertan elkar ikusiko dugulakoan, agurtzen gara,

BizaRa In Kultur Elkarteak